

# EUSKADIKO ORKESTRAK “LA FANTÁSTICA DE BERLIOZ” ERRONKA SINFONIKOA ERAMANGO DU EUSKALDUNARA

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoa obsesio baten sinfoniarekin arituko da abuztuaren 22an Auditoriumean, Robert Treviñoren zuzendaritzapean.**

*Bilbon, 2020ko uztailaren 27an*

Euskalduna Jauregiko programazioa ez da abuztuan ere etengo, eta, abuztuko-iraileko agenda kulturalaren barruan, denok harrituko gaituen hitzordua dago. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak “La fantástica de Berlioz” erronka sinfonikoa eramango du Euskalduna Jauregira, Robert Treviñoren gidaritzapean, abuztuaren 22an Auditoriumean taularatuko den obsesio baten sinfonia. Sarrerak dagoeneko salgai daude ohiko kanaletan; sarreraren prezioa 18 eta 35 euro artean, kudeaketa gastuak barne.

“La fantástica de Berlioz” sinfoniak artearen konbentzio asko hautsi zituen 1830ean estreinatu zenean. Berliozek bere kalbario sentimentaletik atera zuen eleberriko fresko honetarako inspirazioa, egituratzen eta originaltasuna ematen dion partituraren barnean isuri zuen desamodiozko istorioa.

Robert Treviño orkestrako zuzendari titularrak egingo dio aurre erronka sinfoniko honi. 2017ko irailean, Trevinok harrotasunez hartu zuen egoitza Donostian duen Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Musika Zuzendaritza, bi denboraldirako kontratuarekin, hasiera batean. Lehen lankidetzak arrakastatsuen ondoren, 2022. urtera arte luzatu da Orkestraren buru izateko konpromisoa. Bestalde, 1982an sortutako EOS Estatuko orkestra ospetsuenetakoa da, 7.000 abonatu baino gehiago ditu eta 150.000 ikusentzule urteko.

**#KreoEnTiKultura:** 5 euroko beherapena sarrera bakoitzean,  
<https://ticket.kutxabank.es/kreoenti/public/janto/#>  
webgunearen bitartez erosten bada. Aplikagarri soilik uztailean, abuztuan eta irailean egingo diren tokiko ikuskizunetarako.